

Pentsatzen jarri gintuen joan den urteko abenduaren 11, 12 eta 13an Donostiako San Telmo Museoan egin zen *Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia* kongresuak. Bertan, 50 bat hizlari eta 240 entzule inguru bildu ziren, aurrez aurre bildu ere, gaurtik begiratuta irrealia dirudien moduan. Kongresu interesgarri eta beroa izan zen, bai egin ziren ekarpenen aniztasunagatik eta baita eztabaida eta solasaldiengatik ere. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak elkarlanean antolatu zuten, babesle nagusi Gipuzkoako Foru Aldundia izan zen, eta laguntzaile Donostiako Udala, Donostia Kultura erakundea eta San Telmo Museoa. Kongresua iazko udan EHUko Filosofia Sailaren baitan sortutako Joxe Azurmendi Katedraren arnasaldiaren ondorioz etorri zen. Eta kongresuarekin osagarritasunean, Joxe Azurmendiren obra osoa Jakinen atari digitalean (www.jakin.eus) eskura jarri zen formatu aberastu, osotu, erabilgarri eta edertuan. Baina ez da haria hor bukatzen: oraintsu kaleratu dute Joxe Azurmendi Katedrak eta Jakinek haren azken liburua: *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian. Eskolaren eta gogoetaren lana gizaldiz gizaldi*, eta obra horrekin *Ur-jauzia* bilduma abian jarri. Hori guzti hori.

Eta zergatik, bada, hori guzti hori? Zergatik Joxe Azurmendi? JAKINEN orriotan galdera hori egitea erabat lekuz kanpo badago ere –1961etik Jakin Taldeko kide baita–, eta esan beharrik ez badago ere, esan egin behar da: Joxe Azurmendi filosofo, pentsalari eta idazle handi eta oparoa da. Bere ekarpena sustraitua eta noranahikoa aldi berean eta halabeharrez. Beti euskaraz, beti euskaratik. Filosofia, politika, zientzia, teknika, historia, zuzenbidea, artea, gizarte, kultura, hizkuntza, ekonomia, literatura, erlijioa eta beste landu ditu 42 liburu, 118 liburu atal eta bostehundik gora artikulutan.

JAKINEN zenbaki monografiko honetan, kongresuan Azurmendiren ekarpenaz eta euskal pentsamenduaz eman ziren hitzaldien auke-raketa bat duzu. Guztira hamasei, gaikako sei ataletan banatuta: Nazioa, Etika eta politika, Gizaberea, Kooperatibismoa, Hizkuntza eta Zegama eta Arantzazu. Besteren artean, Joseba Zulaika, Idurre Eskisabel, Joseba Sarrionandia, Agnès Cugno, Arantza Etxeberria, Andoni Eizaguirre eta Elixabete Garmendiaren artikulua dituzu.

Txoko bat ere atondu dugu Jakinen atari digitalean monografiko honen osagarri, non kongresuko hitzaldi guztien bideoak eta hitzaldien testuak dauden.

Pentsatzeko garaiak beti dira, baina batzuetan *betiago*, eta oraintxe bizi gaituen distopia honi txertoa pentsamendua lantzetik ere etorriko da; zalantzarik gabe, Joxe Azurmendi leku eta amu eder bat da pentsamenduaz elikatzeko eta pentsamendua pentsatzen hasteko. Unai Iturriagak kontrazalean *Frankenstein doktore* bihurtu du Azurmendi, Euskal Herria pentsatzeko formularen bila: «Mito pixka bat –libertatez–, utopia apal bat, eta mundua gure aurrean zabalik».

Zenbaki guztietan legez, *Egunen gurpilean* atalak Alba Garmendia, Jaime Altuna eta Itziar Ugarteren begiradak dakartza. Pentsatzen jarraitzeko.